

# KODE ETIKOA

## SERVICIOS DE TXINGUDI – TXINGUDIKO ZERBITZUAK SA

2023ko maiatza

### **ALDAKETEN KONTROLA**

| Edizioa     | Aldatutako atalak     | Aldaketaren deskribapena | Data               |
|-------------|-----------------------|--------------------------|--------------------|
| 1. bertsioa | Jatorrizko dokumentua | Jatorrizko dokumentua    | 2023ko maiatzak 30 |
|             |                       |                          |                    |
|             |                       |                          |                    |
|             |                       |                          |                    |
|             |                       |                          |                    |

### **EDUKIA**

- 1. SARRERA. KODE ETIKOAREN HELBURUA**
- 2. APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA**
- 3. KODE ETIKOAREN FUNTZIO INTEGRATZAILEA ETA INTERPRETAZIOA**
- 4. KODE ETIKOA ONARTZEA ETA NAHITAEZ BETETZEA**
- 5. JARDUTEKO PRINTZPIOAK ETA BALIOAK**
- 6. JOKABIDE PROFESIONALARI BURUZKO ARAU OROKORRAK**
- 7. BETEARAZPEN ETA OSOTASUN ORGANOAK**
- 8. INDARREAN JARTZEA ETA INDARRALDIA**

## 1. SARRERA. KODE ETIKOAREN HELBURUA

KODE ETIKO honen helburua da SERVICIOS DE TXINGUDI – TXINGUDIKO ZERBITZUAK SAn (aurrerantzean, Txingudiko Zerbitzuak SA) jarraitu beharreko jokabide printzipioak eta jarraibideak zehaztea, eta, horri esker, bermatzea eta definitzea haren eskumeneko zerbitzu publikoak garatzean ezartzen eta sendotzen dela enpresa etikan oinarritutako kultura.

KODE ETIKO hau Txingudiko Zerbitzuak SAre *Osotasun eskuliburuaren* funtsezko dokumentua da; izan ere, gestio eta antolamendu eredu horren edo arriskuak kudeatzeko sistema horren arau piramidearen gailurrean dago kokaturik.

Hain zuzen ere, Txingudiko Zerbitzuak SAk eskaintzen dituen zerbitzu publikoak ematean proiektatutako legezketasuna, osotasuna eta gardentasuna betetzeko konpromiso irmoaren abiapuntua da Kode Etiko hau, eta bertan daude ezarrita Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsona guztien (langileak, arduradunak, zuzendari kudeatzailea, Administrazio Kontseiluko kideak eta Akziodunen Batzar Nagusiko kideak) jokabidearen funtsezko oinarriak.

Hori horrela, KODE ETIKOAK definitzen du aurrerantzean Txingudiko Zerbitzuak SAn onartuko den kultura etikoki eredugarri bakarra, baita hura identifikatzeko balioak ere, eta hala sendotuko da erakundean osotasunean oinarritutako arriskuak kudeatzeko eredu bat, betetze kultura indartu eta bermatuko duena.

## 2. APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA

KODE ETIKOA Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsona guztiei aplikatuko zaie, edozein dela ere haien kontratu modalitatea, Txingudiko Zerbitzuak SArekin lotzen duen posizio hierarkikoa edo funtzionala —eta bereziki aplikatuko zaie Administrazio Kontseiluko kideei, zuzendariari eta arloetako arduradunei—.

Hala, Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten arloetako bakoitzean garatzen diren jardueren kalterik gabe, Txingudiko Zerbitzuak SAko pertsonetako edozeinek gogoan izan beharko du bere jardura, eta KODE ETIKO honetan jasotako aurreikuspenetara egokitu beharko du une oro, zuzenak diren balio, printzipio eta jokabide gisa.

Era berean, Txingudiko Zerbitzuak SAre hornitzaile eta kontratistek adierazi beharko dute badutela KODE ETIKO honen berri, eta konpromisoa hartu beharko dute kode hau betetzeko Txingudiko Zerbitzuak SAk kontratatutako obra, hornidura, zerbitzu eta abarretan.

### 3. KODE ETIKOAREN FUNTZIO INTEGRATZAILEA ETA INTERPRETAZIOA

KODE ETIKOAREN helburua ez da erakundearen jarduera arruntean gerta daitezkeen balizko kasu guztiak islatzea edo arautzea, baizik eta irizpide argiak ezartzea Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonen jokabidea bideratzeko eta, kasuak hala eskatzen badu, haien lan profesionalean sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

KODE ETIKOAREN interpretazioari buruzko edozein zalantza hierarkian gorago dagoenarekin kontsultatu beharko da, edo, kasuaren arabera, Txingudiko Zerbitzuak Saren Betearazpen eta Osotasun Organoarekin.

### 4. KODE ETIKOA ONARTZEA ETA NAHITAEZ BETETZEA

Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsona guztiek ezagutu, onartu eta bete behar dute KODE ETIKO honen edukia, eta, horretaz gainera, hura ezagutzeko eta ulertzeko prestakuntza egokia egin beharko dute, ondorio guztiak izan ditzan. Dokumentu hau nahitaez bete beharreko araua izango da aurrerantzean, eta ezinbestean betetzekoak izango dira, orobat, Txingudiko Zerbitzuak Saren *Osotasun eskuliburuan* sartuko diren gainerako arauak, politikak, protokoloak, prozedurak eta abar.

Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonak KODE ETIKO hau bete beharko dute: errespetatu egin beharko dituzte haren balioak eta printzipioak, eta bertan ezartzen diren jokabide-jarraibideen arabera jokatu beharko dute.

Hala, erakundea osatzen duten pertsonak —batez ere beste langile batzuk beren ardurapean dituztenek— KODE ETIKOAN xedatutakoa bete beharko dute, bai eta betetzen dela zaindu ere. Kasu guztietan ere, kode horretan ezarritakoarekin bat datozen jarduerak, jokabideak eta ekintzak sustatuko dituzte.

Txingudiko Zerbitzuak SAk KODE ETIKO hau jakinarazi eta hedatu egingo du erakundea osatzen duten pertsonen artean. Horretarako, kopia bana emango du, eta web orrian eta intraneten ere zabalduko du.

Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsona guztiek idatziz hartu beharko dute kode hau betetzeko konpromisoa.

### 5. JARDUTEKO PRINTZIBIOAK ETA BALIOAK

Bost hauek dira Txingudiko Zerbitzuak Saren existentziaren eta jardueraren oinarrizko balioak: OSOTASUNA, BIKAINTRASUNA, HURBILTASUNA, JASANGARRITASUNA, eta EFIZIENTZIA eta BERRIKUNTZA.

OSOTASUNA funtsezko balio gisa hartuta, Txingudiko Zerbitzuak SAK balio etikoekiko errespetua sustatzen du, eta, zehazki, objektibotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, gardentasuna, eredugarritasuna, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura ingurunearen eta ingurumenaren sustapena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoarekiko konpromisoa.

Horrenbestez, Txingudiko Zerbitzuak SAK bermatzen du indarrean dagoen legedia benetan beteko dela eta erabat errespetatuko direla oinarritzko askatasunak eta askatasun publikoak.

Era berean, Txingudiko Zerbitzuak SAK aktiboki sustatzen du ustelkeriaren aurkako borroka, eta prozesu gardenak, objektiboak eta inpartzialak bultzatzen ditu hornitzaileekin eta kontratistekin. Ildo horretan, eskaintako zerbitzuei buruzko informazio garrantzitsu guztia ematen die herritarrei.

Era berean, Txingudiko Zerbitzuak SAK, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateari uraren, hondakinen eta bide garbiketaren ziklo integralari dagozkion zerbitzuak ematen dizkion merkataritza sozietatea den aldetik, modu aktiboan lan egiten du mankomunitatea osatzen duten Irungo eta Hondarribiko udal mugarteetako lurralde eremuarekin: enpresa balioen eta gizartearen itxaropenen arteko beharrezko oreka sustatzen eta bermatzen du. Horren guztiaren helburua da, azken buruan, kalitate goreneko zerbitzu publiko bat eskaintzea, efizientea eta jasangarria —ekonomiaren, gizartearen zein ingurumenaren ikuspegitik—.

Aurreko guztia balio korporatiboetatik abiatzen da, hala nola talde lana, arreta, jasangarritasuna eta eraginkortasuna, funtsezko printzipio horiek inspiratzen baitute Txingudiko Zerbitzuak SAren jarduera publikoa.

Jarrera horretatik, funtsezkoa da etika profesionaleko estandarren arabera eta aplikatu beharreko arau esparruaren arabera jardutea eta, hartara, osotasuna sustatzea. Horren guztiaren helburua da Txingudiko Zerbitzuak SAn izen onari eta irudi instituzionalari kalte egin diezaioketen jokabideak saihestea, eta, horrekin batera, albo batera uztea Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen irudia zikindu dezaketenak, administrazio publikoan integratutako toki erakunde den heinean.

Azkenik, Txingudiko Zerbitzuak SAK baliabide publikoen erabilera egokia eta arduratsua sustatzen du, baita baliabide horien kudeaketa eta administrazioa ere, eraginkortasun, efizientzia, austeritate, jasangarritasun eta gastuaren arrazionalizazio irizpideen arabera, eta une oro herritarrekin duen konpromisoa kontuan hartuta, esleituta dauzkan zerbitzu publikoak behar bezala emateko.

## **6. JOKABIDE PROFESIONALARI BURUZKO ARAU OROKORRAK**

Lanbide jarduera garatzean —izan barne harremanetan, izan bezeroekiko, hornitzaileekiko eta, oro har, Txingudiko Zerbitzuak SAKin zuzenean edo zeharka zerikusia duten kolektibo eta interes talde guztiekiko harremanetan—, esku hartzen duten pertsona guztiek aplikatu beharko dituzte aipatutako printzipio etikoak, eta, besteak beste, jokabide arau hauek bete beharko dituzte:

### 1) Giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatzea

- a. Txingudiko Zerbitzuak SAK konpromisoa du Nazio Batuen Mundu Itunaren edukia aplikatzeko, bai eta giza eskubideen arloan aplikatzekoak diren beste itun edo konbentzio batzuk errespetatzeko ere.
- b. Era berean, Txingudiko Zerbitzuak SAK bere egiten du Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioaren edukia, bai eta ELGaren gidalerroak eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen gizarte politika ere.

### 2) Txingudiko Zerbitzuak SAren *Osotasun eskuliburua* osatzen duten printzipioak, politikak eta arauak betetzea eta delitu jokabideak prebenitzea

- a. Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsona guztiek Espainiako Konstituzioa eta legeak ez ezik beren eginkizun eta erantzukizun profesionalak garatzean aplikatzekoak zaizkien gainerako xedapen orokorrak ere bete beharko dituzte, bai eta *Osotasunaren eskuliburua* osatzen duten printzipio, politika eta barne arauak ere, baldin eta dagozkien jarduera esparruei eragiten badiete.
- b. Hartara, Txingudiko Zerbitzuak SAK eta haren kide guztiek une oro saihestuko dute iruzurrezko praktikak, irregularrak eta legez kanpokoak egitea, bereziki erakundearentzat edo beraientzat zuzeneko edo zeharkako onurak dakartzaten ekintzak —eta oso bereziki jokabide horiek balizko delituak eragin baditzakete—.
- c. Gainera, jakinaren gainean ipini beharko dituzte hierarkian gorago dagoen pertsona, Giza Baliabideak edo Betearazpen eta Osotasun Organoa, edozein kontzepturengatik inplikaturik dauden edozein eremutako prozedura judizial bat dagoela jakin bezain laster, betiere zuzeneko edo zeharkako lotura izan badezake Txingudiko Zerbitzuak SAN duten lanbide jarduerarekin.

### 3) Jokabide profesional zintzoa izatea

- a. Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonak zorrotz beteko dute indarrean dagoen legeria, eta printzipio hauetara egokituko dute beren jarduera: osotasuna, gardentasuna, leialtasuna, fede ona eta arbitrariotasunaren debekua. Horretarako, irizpide etiko eta moral

gorenei eutsiko diete, eta osotasunez, zintzo, arduraz, erantzukizunez, neutraltasunez eta eraginkortasunez egingo dute beren lan profesionala, bai Txingudiko Zerbitzuak SArekiko, bai nagusi, lankide, mendeko eta herritarrekiko.

- b. Era berean, haien jardunaren helburu bakarra izango da herritarren interes orokorrak asetzea.
- c. Eraginkortasun, ekonomia eta efizientzia printzipioen arabera jardun beharko dute, eta arduraz zainduko dute lortzen dela interes orokorra eta betetzen direla erakundearen helburuak.
- d. Txingudiko Zerbitzuak SAn austeritatez administratu beharko dira baliabideak eta ondasunak, eta ez dira erabiliko norberaren edo hurbileko pertsonen onurarako. Era berean, Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonen tentuz zaindu beharko dituzte ondasunok.
- e. Kideek nagusien jarraibide eta agindu profesionalak beteko dituzte, ordenamendu juridikoaren edo Txingudiko Zerbitzuak SAn barne arauen ageriko arau haustea direnean izan ezik; kasu horretan, berehala ipiniko dituzte jakinaren gainean zuzendari kudeatzailea, Giza Baliabideak edo Betearazpen eta Osotasun Organoa.
- f. Txingudiko Zerbitzuak SAko kideek ez dute inolako eraginik izango bidezko arrazoirik gabe izapideak edo prozedurak azkartzeko edo ebazteko; era berean, inola ere ez dute izango halakorik, horrek pribilegioa sortzen badu kargu publikodunen edo haien hurbileko familia eta gizarte ingurunearen onurarako, edo kalte egiten badie hirugarrenen interesei.
- g. Arduraz beteko dira lanpostuari dagozkion zereginak, eta ezarritako lanaldia eta ordutegia bete beharko dira.
- h. Txingudiko Zerbitzuak SAko kideek eguneratuta edukiko dute beren eginkizunak betetzeko beharrezko prestakuntza eta kualifikazioa.
- i. Txingudiko Zerbitzuak SAko kide guztien betebeharra da hierarkiako nagusi hurrenari eta/edo, kasuak hala eskatzen duenean, Betearazpen eta Osotasun Organoari jakinaraztea zehapen prozedura judizial, penal edo administratibo ororen hasiera, bilakaera eta emaitza, baldin eta Txingudiko Zerbitzuak SAko kide bat alderdi ikertua, erruztatua edo akusatua bada eta erakundeko kide gisa dituen eginkizunetan eragin badiezaioke. Halakoetan, Txingudiko Zerbitzuak SAK bidezko diren diziplina eta/edo zehapen neurriak hartuko ditu.

- j. Txingudiko Zerbitzuak SA ez den beste sozietate edo erakunde batzuei beren edo besteren konturako lan zerbitzuak edo zerbitzu profesionalak emanez gero, ahalik eta lasterren ipini beharko da jakinaren gainean, eta zuzendari kudeatzaileak aldeztu aurretik eta idatziz eman beharko du baimena, Giza Baliabideen eta Betearazpen eta Osotasun Organoaren txostena jaso ondoren, kontuan hartuta zerbitzu horiek emateak ezin duela inola ere oztopatu Txingudiko Zerbitzuak SAko partaidearen lana.
- k. Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonen alderdi politikoekin edo helburu publikoak dituzten bestelako erakunde, instituzio edo elkarteekin lotura, kidetasuna edo lankidetzak izanez gero —betiere Txingudiko Zerbitzuak SAK zerbitzu publikoak ematearekin zerikusirik ez duen esparru batean—, argi eta garbi utzi beharko da horien izaera pertsonala. Hori horrela, saihestekoa izango da zernahi harreman erakundearekin, zeinak modu politikoki neutroan jokatuko baitu beti.
- l. Azkenik, Txingudiko Zerbitzuak SAko kideek argi eta garbi utziko dute pertsonalak direla sare sozialetan, foroetan edo blogetan dituzten sorkuntzak, kidetasunak, partaidetzak eta lankidetzak, baita horietan ematen dituzten iritziak edo adierazpenak ere, eta debekatuta egongo da aurreko kasuetan Txingudiko Zerbitzuak SAREN izena erabiltzea eta aipatzea edo haren izenean jardutea. Adierazpenak erakundeko kide gisa egiten badira, modu ordenatu eta koordinatuan eman beharko dira, eta egiaztatu beharko da bat datozela hierarkian gorago dagoenarekin. Era berean, isilpean gordeko da beti komunikabideen aurrean erakundeari buruzko edozein informazio.

#### 4) Langileen eskubideak errespetatzea

- a. Zorrotz beteko dira Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko enpresaren legeko xedapen eta barne arau guztiak, eta Txingudiko Zerbitzuak SAK eskura jarritako baliabideak erabiliko dira langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko eta laneko arriskuetatik babesteko, guztia ere laneko arriskuak ahalik eta gehien prebenitzeko eta arrisku horiek ahalik eta txikienak izateko.
- b. Gaitzetsirik dago abusu fisiko, psikologiko, moral edo autoritate mota oro, bai eta pertsonaren eskubide indibidualak irain ditzakeen beste edozein jokabide ere. Langile guztiek —eta bereziki buruzagitza eginkizunak betetzen dituztenek edo langileak beren kargura dituztenek— ziurtatu beharko dute ez dela gertatzen halako egoerarik, eta errespetuan, ekitatean eta elkarrekiko lankidetzan oinarritutako harremanak sustatuko dituzte une oro. Hori horrela, langile guztien garapen pertsonal eta profesionalerako errespetuzko lan giro positiboa bultzatuko dute.

Ez da onartuko laneko jazarpenik, sexu jazarpenik, sexuan oinarritutako jazarpenik, larderiarik, errespetu eta begirune faltarik, edo bestelako zernahi eraso fisiko edo ahozko erasorik.

- c. Enplegatuek askatasun sindikalerako eta elkartzeko eskubideak errespetatuko dituzte, bai eta langileak ordezkatzeko dituzten erakundeek legez kotatutako esparruan egiten dituzten jarduerak ere, betiere legez esleituta dauzkaten eginkizunen eta eskumenen arabera; era berean, elkarrekiko errespetuan oinarritutako harremana izango dute haiekin, elkarriketa irekia eta eraikitzailea sustatzeko.

## **5) Tratu eta aukera berdintasuna, eta diskriminaziorik eza**

- a. Hautaketa, kontratazio eta ordainketarako politikei eta praktikei dagokienez, Txingudiko Zerbitzuak SAK bermatzen du kideen enplegu baldintzek edo prestakuntzarako eta sustapenerako sarbideak merezimendu eta gaitasun irizpideei soilik erreparatzen dietela, betiere gizonen eta emakumeen arteko tratu berdintasunaren printzipioa errespetatuz, eta, era berean, bermatzen du ez duela egingo diskriminaziorik arraza, sexu, ideologia, nazionalitate, desgaitasun, sinesmen edo beste edozein egoera pertsonal, fisiko edo sozialengatik.

Illo beretik, Txingudiko Zerbitzuak SAK bermatzen du kide guztiak modu objektiboan ebaluatzen dituela, zein bere lanbide jardunaren arabera. Horretarako, kontratazio, hautaketa eta/edo sustapen profesionaleko prozesuetan esku hartzen duten pertsonen gardentasun, erantzukizun inpartzial, profesionaltasun, independentzia eta diskrezionalitate teknikoko irizpideen arabera hartuko dituzte erabakiak, eta ez dute onartuko bete beharreko lanpostuaren profilari ondoen erantzuten dion pertsona hautatzeko objektibotasuna alda dezaketen faktoreen eraginik.

## **6) Iruzurraren aurkako borroka**

- a. Txingudiko Zerbitzuak SAK, zerbitzu publikoak ematen dituen enpresa bat den aldetik, eredu izan behar du edozein ekintza ustelen aurkako prebentzioan eta borrokan. Hori horrela, Txingudiko Zerbitzuak SAK gaitzetsi egiten du erakunde pribatuekin zein agintari edo funtzionario publikoekin egindako jarduketak ustel edo desleialetan oinarritutako edozein jardura, akordio edo emakida. Illo horretan, Txingudiko Zerbitzuak SAK adierazten du konpromiso irmoa duela irregulartzat jo daitezkeen praktikak ez egiteko —barnean harturik kapital zuriketari, funtzionario eroskeriari edo eragimen trafikoari buruzkoak—, herritarrekiko, hornitzaileekiko, lehiakideekiko eta Administrazio Publikoarekiko harremanetan, besteak beste.

- b. Txingudiko Zerbitzuak SAK baimendutako pertsonak egingo dituzte erakundeari dagozkion ordainketak, baimen horren muga barruan, titulu izendunen edo banku transferentziaren bidez, eta erabat debekatuta egongo da eskudirutan edo titulu baliokideen bidez ordaintzea. Nolanahi ere, finkatu ahal izango da zenbateko jakin bat, hortik beherako ordainketak eskudirutan edo titulu baliokideen bidez egin ahal izateko.
- c. Ildo horretan, Txingudiko Zerbitzuak SAko kideek ezin izango dute eskaini edo eman justifikatu gabeko abantailarik edo onurarik —ez zuzenean, ez bitartekari bidez—, eta ezingo dute eskatu edo onartu, orobat, erakundearentzat, beraientzat edo hirugarrenentzat orain zein aurrera begira onura bat xede duten abantailarik edo onurarik. Zehazki, ezin izango dute eman edo jaso beste edozer alderdik eginiko eroskeria edo komisorik; alderdi horiek izan daitezke funtzionario publikoak —espainiarrak edo atzerriarrak—, beste enpresa batzuetako langileak, alderdi politikoak, agintariak, bezeroak, herritarrek eta hornitzaileak. Berariaz debekatuta daude eroskeria egintzak, hala nola edozein abantaila desegoki eskaintzea edo agintzea, zuzenean edo zeharka, horiek estaltzeko edozein tresna, eta eragin trafikoa.
- d. Ildo beretik, Txingudiko Zerbitzuak SAko kideek ez dute promesarik egingo, eta ez dute emango oparirik edo konpentsaziorik, organo administratibo, judizial edo politikoen izapideak arintzeko edo horien emaitzan ziurtatzeko edo eragiteko. Opariei edo bestelako ordainsariei dagokienez, debekaturik geratzen dira, gustuen eta tokiko erabileren arabera kortesiazkotzat jo daitezkeenak izan ezik; horiek Betearazpen eta Osotasun Organoaren baimena beharko dute, harik eta halakoak arautzen dituen barne arau edo protokolo bat onetsi arte.
- e. Halaber, Txingudiko Zerbitzuak SA politikoki neutroa izango da.
- f. Bestalde, profesionalek saihestu egingo dute interes gatazkako egoera oro, erakundeko kide baten interes pertsonalak eta Txingudiko Zerbitzuak SAn interesak zuzenean edo zeharka talka egiten dutenean. Kasu horretan, Txingudiko Zerbitzuak SAko kideek jakinaren gainean ipini beharko dute erakundea, hierarkian gorago dagoen arduradunaren bidez, eta hark Betearazpen eta Osotasun Organoari jakinaraziko dio, kasu bakoitzean bidezkoak diren neurriak har ditzan gatazka egoera amaitzeko.
- g. Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonak erabat debekatuta daukate dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzea, baldin eta horretarako dirulaguntza horiek emateko eskatzen diren baldintzak faltsutu behar badituzte, laguntzak ematea eragotzi duten baldintzak ezkututzen

badituzte, eta EBko aurrekontu orokorre, Gizarte Segurantzari edo Espainiako edo EBko Ogasun Publikoari iruzur egin behar badiete.

## **7) Finantza informazioaren barne kontrola**

- a. Txingudiko Zerbitzuak SAn ekonomia eta finantza informazioak zintzo islatuko du haren ekonomia, finantza eta ondare errealitatea, betiere bat etorri orok har onartutako kontabilitate printzipioekin eta aplikagarriak diren finantza informazioko nazioarteko arauekin. Ondorio horietarako, erakundeko ezein kidek ez du ezkutatu edo desitxuratuko Txingudiko Zerbitzuak SAn kontabilitateko erregistro eta txostenetako informazioa, eta informazio hori osoa, zehatza eta egiazkoa izango da beti.
- b. Txingudiko Zerbitzuak SAK, funts publikoak kudeatzen dituen aldetik, arreta handia jartzen du bere jardura garatzeko, eta, kasu guztietan ere, ziurtatu egin behar du kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko jasotzen dituen funtsen edo ordaintzen legezko jatorria.
- c. Txingudiko Zerbitzuak SAK badaki zeinen garrantzitsua eta beharrezkoa den erakundearen informazio ekonomiko eta estrukturalerako sarbide publikoa ematea. Horretaz gainera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen eremu subjektiboaren barruan dago. Horretarako, Txingudiko Zerbitzuak SAK aipatutako araudian ezarritakoa beteko du, aplikatzeko zaionean. Gainera, web orri korporatiboan eguneratuta edukiko du erakundeari buruzko informazio guztia, gardentasunari buruzko araudiak dioena betez.

## **8) Gardentasuna eta leialtasuna zerga agintariekin harremanetan, eta funts publikoak behar bezala erabiltzea**

- a. Txingudiko Zerbitzuak SAK zerga arloko jardunbide egokiak gauzatzeko konpromisoa hartzen du, eta une oro beteko du zerga araudia. Hala, konpromisoa hartzen du, orobat, Gipuzkoako Foru Ogasunarekin eta Espainiako Zerga Agentziarekin harreman egokia izateko. Debekaturik izango du legez kontrako onurak lortzea, bai eta zergak, atxikitako zenbatekoak edo atxiki beharko litzaizkiokeenak ez ordaintzea ere. Debekatuta edukiko du, halaber, gauzako ordainsarien konturako edozein diru sarrera jasotzea, horien bidez bidegabeko itzulketak lortzen badira, eta galarazita edukiko du, gainera, indarrean dauden arauak ezarritako kontabilitate betebeharrak ez betetzea, baita kontabilitate liburuak edo erregistroak ez betetzea ere.

- b. Ildo beretik, Administrazio Publikoaren dirulaguntzak, desgrabazioak edo laguntzak lortzen dituen kasuetan, Txingudiko Zerbitzuak SAK bermatzen du lortutako funtsak behar bezala erabiliko dituela ematen diren helburuetarako.

#### **9) Jabetza intelektualaren eta jabetza industrialaren eskubideak errespetatzea**

- a. Txingudiko Zerbitzuak SAK errespetatzen eta defendatzen ditu dagozkion jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak, baita hirugarrenei dagozkienak ere.
- b. Jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak babesteko, jakinik Txingudiko Zerbitzuak SAK eskubide horien titularra dela edo legez emanda dauzkala, edo zentzu horretan bertan hirugarrenei legozkiekeen eskubideak babesteko, erakundeko kideek debekatuta edukiko dute, besteak beste, jarduera hauek gauzatzea:
  - i. Egile eskubideekin babestutako obra literario, artistiko edo zientifiko bat banatzea, plagiitzea, erreproduzitzea edo jendaurrean komunikatzea, dagozkion jabetza intelektualeko eskubideen titularren edo lagapen hartzaileen baimena izan gabe.
  - ii. Hirugarren erakunde baten zeinu bereizgarri (marka) berbera edo nahasgarria erreproduzitzea, imitatzea, aldatzea, usurpatzea (Jabetza Industrialeko eskubidea erregistratuta daukaten produktu, zerbitzu, jarduera edo establezimendu berberak edo antzekoak bereizteko), erregistratutako eskubidearen titularraren baimena izan gabe.
  - iii. Funtsean patenteek babestutako prozedurak edo emaitzak inportatzea, edukitzea, erabiltzea, eskaintzea edo merkataritza zirkuituan sartzea, titularren baimenik gabe.

#### **10) Interes taldeekiko harremana**

- a. Txingudiko Zerbitzuak SAK konpromisoa hartzen du harekin lotutako interes taldeekin harremana izateko, legezkotasuna betetzean eta elkarrekiko errespetuan eta konfiantzan oinarrituta.
- b. Zehazki, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateari dagokionez, Txingudiko Zerbitzuak SAK konpromisoa hartzen du informazio gardena, argia, egiazkoa eta osoa emateko, eta une oro bermatzeko balio iraunkorra sortuko dela eta zerbitzu publiko ezin hobea emango duela herritarren interes orokorra lortzeko.

- c. Enpresei eta herritarrei dagokienez, Txingudiko Zerbitzuak SAK bere beharrak eta itxaropenak asetzeko eta kalitate goreneko zerbitzu publikoa emateko konpromisoa hartzen du, eta konfiantza, gardentasuna eta bikaintasun profesionala sustatzen ditu enpresekiko eta herritarrekiko harremanetan.
- d. Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonak arretaz eta errespetuz tratatuko dituzte herritarrak, nagusiak eta gainerako langileak.
- e. Herritarrei informazioa emango diete jakiteko eskubidea duten auziei edo gaiei buruz, eta erraztasunak emango dizkiete beren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko; era berean, bermatuko dute euskaraz zein gaztelaniaz emango diotela arreta herritarrari, azken horrek aukeratzen duen hizkuntzan.
- f. Bezeroen eta herritarren datu pertsonalak biltzeko, erabiltzeko eta tratatzeko, haien intimitaterako eskubidea bermatu beharko da, eta bermatu beharrekoak izango dira, orobat, datu pertsonalak babesteari buruzko legeria, informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzko legeriak aitortutako eskubideak eta aplikagarriak diren gainerako xedapenak.
- g. Bestalde, hornitzaileei eta kontratistei dagokienez, Txingudiko Zerbitzuak SAK konpromisoa hartzen du konfiantzan eta informazioaren gardentasunean oinarritutako harremanak bultzatzeko. Horretarako, hornitzaileak eta kontratistak hautatzeko prozesu publikoak gauzatzen ditu, osotasuna, independentzia, gardentasuna, neutraltasuna eta objektibotasuna ardatz hartuta, eta kaudimen, egokitasun tekniko, kalitate eta prezio estandarretan oinarrituta. Ilido horretan, KODE ETIKOAREN edukiaren berri eman behar zaie hornitzaile horiei.
- h. Txingudiko Zerbitzuak SAK egiten dituen kostu bidezko kontratazioak sektore publikoko eta sektore berezietako kontratazioaren arloko legeriaren arabera egin beharko dira. Hala, bermatuta geratuko dira printzipio hauek: lizitazioetan parte hartzeko askatasuna, publizitatea, prozeduren egokitasuna eta gardentasuna, eta hautagaien arteko diskriminaziorik eza eta tratu berdintasuna. Txingudiko Zerbitzuak SAK konpromisoa hartzen du kontratazioaren fase guztiak modu egokian egiteko, aplikatu beharreko araudian eta aplikatu beharreko beste edozeinetan adierazitako jarraibideei men eginez.
- i. Hori horrela, Txingudiko Zerbitzuak SAK modu etikoan, bidezkoan eta inpartzialean izango ditu harremanak ondasun eta zerbitzuen hornitzaileekin, eta Txingudiko Zerbitzuak SAKo kideek ez dute parte

hartuko hornitzaileak aukeratzen, baldin eta gatazka egoeraren bat ageri bada edo araudia urratzeko arriskua badago.

- j. Azkenik, Administrazio Publikoari dagokionez, Txingudiko Zerbitzuak SAren jarduera beti oinarrituko da harekiko erabateko errespetuan, eta, kasu guztietan, legezotasuna benetan betetzea izango du helburu; horretarako, agintaritzekin lankidetzan jardungo du bere eginkizunak betetzerakoan, eta une oro saihestuko du Txingudiko Zerbitzuak SAri mesede tratua ekarriko liokeen zernahi gonbidapen, opari edo dohain bideratzea administrazio publikoarekiko harremanetan.

#### 11) Administrazioaileak eta zuzendariak

- a. Entitateko administrazioaileek eta zuzendariak erreferentzia pertsonal eta profesional izan behar dute Txingudiko Zerbitzuak SAko kideentzat, eta osotasun eta betetze kultura sustatuko dituzte eguneroko jokabidearekin; hori horrela, erakundeak hartutako printzipio eta balioen eta KODE ETIKO honen bidez hartutako konpromiso guztien etengabeko adibide izango da.
- b. Era berean, egiaztatu beharko dute Txingudiko Zerbitzuak SAko kide guztiek *Osotasun eskuliburuaren* arloko prestakuntza osatu dutela eta prestakuntza hori ulertu eta barneratu dutela.
- c. Bestalde, erakundeko kideek KODE ETIKO honen inguruan duten edozein zalantza edo kezka aurrean laguntzeko balioko dute, Betearazpen eta Osotasun Organoarekin lankidetzan; inoiz ez dute emango Legearen eta KODE ETIKO honen edukien aurkako jarraibiderik.

#### 12) Kooperazioa, partaidetza eta lankidetzak

- a. Txingudiko Zerbitzuak SAK lankidetzako, partaidetzako eta talde laneko ingurunea sustatzen du, eta, haren bidez, kideek gaitasun eta baliabide guztiak egoki eta hobeto aprobetxatzea ahalbidetzen da.
- b. Hori horrela, erakundeko kideek lankidetzak espirituarekin jardun beharko dute, eta Txingudiko Zerbitzuak SAK esku ipiniko dituzte erakundearen helburuak eta interesak lortzen lagun dezaketen ezagutzak edo baliabideak, modu eraginkorrean lan eginez eta Txingudiko Zerbitzuak SAK bere esku jartzen dituen baliabideak behar bezala aprobetxatuz eta erabiliz.
- c. Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonen dokumentuen konstantzia eta iraunkortasuna bermatu beharko dute, ondorengo arduradunei bidaltzeko eta entregatzeko.

- d. Bideratzen dituzten unitatearen eginkizunak hobetze aldera, nagusien edo erakunde arduradunen eskura ipiniko dituzte egoki iritzitako proposamen guztiak.

### **13) Irudi eta ospe korporatiboa**

- a. Txingudiko Zerbitzuak SAK balio handiko aktibotzat jotzen ditu bere irudi instituzionala eta ospe korporatiboa, bere interes taldeen konfiantza babesteko.
- b. Horregatik, erakundeko kideak behartuta daude Txingudiko Zerbitzuak SAKen irudi publikoa eta instituzionala ez ezik haren izen ona ere gordetzera jarduera profesional guztietan, eta saihestu egin behar dute haiei zuzenean edo zeharka kalte egin diezaiekeen jokabide oro.

### **14) Intimitaterako eskubidea**

- a. Txingudiko Zerbitzuak SAK betetzen du datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen legedia, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak, langileek, bezeroek, herritarrek, enpresek, hornitzaileek edo hautagaiek ematen dizkioten datuei dagokienez — besteak beste, hautaketa prozesuetan emaniko datuen kasuan—. Horregatik, erakundeak konpromisoa hartzen du datuok behar bezala kontserbatzeko eta baimendutako helburuetarako erabiltzeko, eta ez ditu zabalduko, salbu eta interesdunek horretarako baimena ematen badute edo legez behartuta badaude.
- b. Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonak hitz ematen dute arduraz erabiliko dituztela hedabideak, sistema informatikoak eta, oro har, erakundeak bere esku jartzen dituen beste edozein baliabide, betiere horretarako ezartzen diren politika eta irizpideei jarraikiz. Baliabide horiek ez dira ematen erabilera pertsonal ez-profesionalerako, eta, beraz, ez dira egokiak komunikazio pribaturako. Ez dute sortzen horregatik pribatutasun igurikimenik, baldin eta Txingudiko Zerbitzuak SAK gainbegiratu beharko balitu, gainbegiratze eta kontrol betebeharrak betetzean.
- c. Txingudiko Zerbitzuak SAK bermatzen du ez duela zabalduko kideen datu pertsonalik, nola eta interesdunek ez duten baimena eman. Era berean, eman ahalko ditu datu horiek, baldin eta legezko betebeharra bada edo ebazpen judizial edo administratibo batek hala eskatzen badu. Ildo horretan, beren jarduera dela-eta beste profesional edo enpresa batzuen datu pertsonalak eskuratzen dituzten Txingudiko Zerbitzuak SAKo kideek idatziz hartuko dute datu horien konfidentziasuna mantentzeko konpromisoa.

- d. Inola ere ezingo dira tratatu Txingudiko Zerbitzuak SAko kideen datu pertsonalak, ez bada legez edo kontratuan aurreikusitako helburuetarako.

#### **15) Informazio erreserbatuaren, konfidentzialaren eta pribilegiatuaren tratamendua**

- a. Txingudiko Zerbitzuak SAren ustez, informazioa eta ezagutza dira beren jardueraren garapenerako aktibo baliotsuenetako bat, eta, beraz, babes berezia behar dute.
- b. Txingudiko Zerbitzuak SAren jabetzakoa eta/edo Txingudiko Zerbitzuak SAren esku utzitako informazioa, oro har, isilpeko informaziotzat eta konfidentzialtzat jotzen da, eta sekretu profesionalari lotuta egongo da. Informazio horren edukia ezin izango zaie eman hirugarrenei, Txingudiko Zerbitzuak SAk berariazko baimena ematen ez badu, gertatzen diren inguruabarrek hala justifikatzen badute, edo horretarako legezko errekerimendua egiten bada edo ebazpen judiziala edo administrazio agintaritza betez bidezkoa bada.
- c. Txingudiko Zerbitzuak SAren eta haren kide guztien erantzukizuna da informazio erreserbatua eta konfidentziala babesteko behar diren segurtasun baliabideak jartzea, baimenik gabe sartzeko, manipulatzeko edo suntsitzeko (nahita edo ustekabea) barneko edo kanpoko edozein arriskuren aurrean. Ondorio horietarako, Txingudiko Zerbitzuak SAko kideek isilpean gordeko dute hirugarrenetik harremanetan egiten duten lanaren edukia, eta Txingudiko Zerbitzuak SAk zigortu ahal izango ditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

#### **16) Informazioaren berrikuntza eta babesa sustatzea**

- a. Txingudiko Zerbitzuak SAren ustez, berrikuntza funtsezko balioa da egungo enpresa kudeaketarako eta esleituta dauzkan zerbitzu publikoak ahalik eta ondoen emateko. Horregatik, erakundeak prozesu eta zerbitzuen etengabeko hobekuntza eta horien atzean *know-how*a sustatzen ditu, eta, gainera, bermatzen du erabateko babesa dutela bere jardueran sortutako datuek, informazioak eta jakintzak.
- b. Hori horrela, Txingudiko Zerbitzuak SAko kideek eskura duten informazioa eta ezagutza babestu eta zainduko dute, eta, horretarako, beren eginkizunak modu arduratsuan eta eraginkorrean betetzeko bakarrik baliatuko dute informazio hori, beren jarduera profesionalaren ingurunera egokituta eta indarrean dauden baimen prozedurak betez.

#### **17) Osasun publikoa eta ingurumena errespetatzea**

- a. Txingudiko Zerbitzuak SAK betetzen du osasun publikoaren eta ingurumenaren arloan aplikatzekoa den legeria. Era berean, erakundeak ezarrita dauzka osasun publikoarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten balizko gertakariak babesteko eta etengabe hobetzeko prozedurak, eremu horietan legeak edo bestelako babes xedapen orokorrak urratzea saihesteko.

## **7. BETEARAZPEN ETA OSOTASUN ORGANOAK**

Betearazpen eta Osotasun Organoak zaindu beharko du behar bezala eta benetan betetzen dela KODE ETIKO hau, eta Txingudiko Zerbitzuak SAKo kideek kode hori ezagutzen, zabaltzen eta ulertzen dutela sustatuko du. Era berean, gutxienez urtean behin berrikustea sustatuko du, bai eta eguneratzea ere, kasuan kasuko inguruabarrak ikusita bidezkoa denean.

Betearazpen eta Osotasun Organoak izango du, era berean, KODE ETIKO honetan jasotako printzipioekin bat ez datorren jokabide irregular oro ikertzeko eskumena; hark emango die dagokion bidea eta erakundearen diziplina eta zehapen araubidea erregulatzen duten arauak aplikatuko ditu.

Txingudiko Zerbitzuak SAKo kide batek KODE ETIKOAREN aurkako edo legez kontrako jardueren berri badu edo horien arrazoizko zantzurik badu, kanal etikoaren bidez jakinarazi beharko du, Kanal Etikoa eta salaketak kudeatzeko prozedura arautzen dituen arauan xedatutakoaren arabera.

Salatzailearen identitatea isilpeko informazioztat hartuko da, eta ezin izango da hartu inolako diziplina neurririk edo errepresaliarik salaketa egiteagatik —ez zuzenekorik, ez zeharkakorik—, hargatik eragotzi gabe indarrean dagoen araudiaren arabera salatutako pertsonen dagozkien eskubideak.

Horretaz gainera, konfidentziasunez tratatuko dira Betearazpen eta Osotasun Organoak jasotako komunikazio guztiak, indarrean dagoen legediaren arabera une bakoitzean dagozkion agintari judizial edo administratiboei jakinarazteko betebeharrari kalterik egin gabe.

## **8. KODE ETIKOA INDARREAN JARTZEA, INDARRALDIA ETA EGUNERATZEA**

Dokumentu hau Txingudiko Zerbitzuak SAKo Administrazio Kontseiluak onartu du 2023ko maiatzaren 30ean, eta berehala hartuko du indarra. Hala, indarrean jarraituko du harik eta inolako aldaketarik egiten ez den arte. Nolanahi ere, beharrezkoa da Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonen agiri hori zabaltzea eta prestakuntza ematea.

KODE ETIKO honetan egiten diren aldaketak Administrazio Kontseiluak onetsiko ditu, Betearazpen eta Osotasun Organoak proposatu ondoren, eta Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsona guztiei bitarteko telematikoen bidez jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera izango dira aplikatzekoak. Aldaketek ordura arte indarrean zegoen dokumentua aldatzea badakarte, Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonei prestakuntza eman beharko zaie haien gainean.